

IKASLEAREN GIDA:

**KULTURA-ANIZTASUNA ETA
ELEANIZTASUNA GIZARTE
KONPLEXUETAN**

**IKASTURTEA:
2012-2013**

TITULAZIOA: GRADUA PSIKOLOGIAN

ZENTRO: PSIKOLOGIA FAKULTATEA

IKASTURTEA: 2012-2013

IKASLEAREN GIDA

1. IRAKASGAIAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

IZENA: Kultura-aniztasuna eta eleaniztasuna gizarte konplexuetan

KODEA: 25079

IKASTURTEA: 2012/13

IRAKASGAI MOTA = Hautazkoa

ECTS Kredituak: 6

kurtsoa: 3. edo 4.

LAUHILEKOA: 1

Bete beharrekoak:

Gomendioak: Eskuhartze psikosozialeko minorreko gainontzeko ikasgaiak aldi berean ikastea

2. IRAKASLE-TALDEAREN DATUAK

IZENA: Lorena Gil de Montes Echaide

ZENTRO/SAILA: Gizarte psikologia eta portaera zientzien metodologia saila

ALORRA: Gizarte psikologia

BULEGOA: 2D13

e-posta:
lorena.gildemontes@ehu.es

TLF: 943 01 56 90

URL WEB:

3. IRAKASGAIAREN BERARIAZKO ETA ZEHARKAKO GAITASUNAK

Gaitasuna	Irakasgaiaren berariazko gaitasunak
1	Gizartearen kulturantzarenekin eta eleaniztasunarekin eta banakoen kulturantzarenekin eta eleaniztasunarekin zerikusia duten funtsezko kontzeptuak eta teoria nahiz eredu psikosozialak ezagutzea
2	Gizarteratzea eta bizikidetasuna faboratzen duten kulturantzaren eta eleaniztasunaren ahalmenak ezagutzea
3	Lortutako jakintzak ikerketan eta gizarteko esku hartzeetan aplikatzeko gai izatea
4	Diziplina anitzeko eta kultura anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea
5	Ahozko nahiz idatzizko txosten teknikoak egiteko gai izatea
6	Kulturantzarenari eta eleaniztasunari buruzko dokumentazio-iturriak erabiltzeko gai izatea, eta informazio eskuratzeko behar diren estrategiak menderatzen direla erakustea

4. PROGRAMA

4.1. PROGRAMA TEORIKO ZABALA

Programa teoriko zabala

1 gaia.- Kultura eta balioak

- Balioen azterketa kultura ezberdinetan
- Schwartzen balioen sailkapena
- Garapen sozio-historikoa eta Ingleharten balioen sailkapena

2 gaia.- Kultura eta ondorio psikosozialak

- Zer da kultura?
- Hofstederen proiektua
- Hofstederen dimentsioak: Indibidualismoa eta kolektibismoa, boterearekiko distantzia, ziurgabetasuna ekiditea, maskulinitatea eta feminitatea

3 gaia.- Selfaren eraikuntza kulturala: Kognizioa, motibazioa, emozioak

- Selfaren eraikuntza kulturala. Garapena
- Selfaren eraikuntza independentea eta elkarmenpekoa
- Selfaren eraikuntza eta bere ondorioak kognizioan eta motibazioan
- Selfaren eraikuntza eta bere ondorioak emozioetan eta ongizatean

4 gaia.- Kulturarteko komunikazioa

- Elkarrekintza soziala eta hizkuntza
- Kultura eta hizkuntza-testuinguru maila
- Kultura eta komunikazio estiloak

- Kultura, elkarrekintza soziala eta hizkuntzaren erabilera

5 gaia.- Akulturazio psikologikoa

- Identitate kulturala eta akulturazioa
- Akulturazio estrategiak
- Akulturazio estresa
- Migrazioa

6 gaia.- Identitate etnikoa eta hizkuntzaren erabilera

- Identitate etnikoa eta bizindar etnolinguiskoa
- Hiztun taldeekiko jarrerak
- Komunikazio bateratasunaren eta desberdintzearen oinarri psikosozialak
- Hizkuntza-portaera hizkuntza-ukipen egoeretan

7 gaia.- Diskriminazioa eta estigma

- Diskriminazio portaera
- Diskriminazio mota agerikoak eta izkutuak
- Diskriminazioa azaltzen duten prozesu psikosozialak
- Diskriminazioaren ondorioak besteengan: Estigma

8 gaia.- Bizikidetzeta

- Diferentzietan oinarritutako komunitatea
- Komunikazioa diferentzien komunitatean
- Inklusio morala

4.2. PRAKTIKA EGITASMOA (*)

Ikasgaiak bi praktika mota ezberdin ditu. Alde batetik, ikasle bakoitzak banaka edo taldeka zazpi praktika egingo ditu, gelako praktika, ordenagailu praktika eta landa praktika orduetan (praktika laburrak). Bestetik, ikasturtean zehar taldeko lan bat garatzea eskatzen da, tailerretako orduetan hasten dena eta hiru zatitan entregatzen dena (praktika jarraia).

1.- **Praktika laburrak.** Praktiken helburu nagusia faktore sozio-kulturalak giza portaeran eta hizkuntzaren erabileran duten eragina ikasleei ulertaraztea da. Zazpi praktika egitea eskatzen da eta praktika bakoitzeko informe laburra idaztea. Jarduera hauek 3 gelako praktiketara (praktika 1, 3, eta 7), ordenagailu praktiketara (praktika 4, 5, eta 6) eta landa praktika batean (praktika 2) egingo dira.

1 praktika (GP1). Norbere orientabide kulturalaren eta balio kulturalen azterketa eta hausnarketa. Praktika honen bitartez ikasle bakoitzak bere balio kultural nagusiei buruzko hausnarketa egiten du. Balio hauen jabe izateak besteen orientabide kulturala ulertzen laguntzen du. Praktikak informe tekniko bat idaztea eskatzen du (Gaitasunak: 1, 2, 3, 5, 6)

2 praktika (LP). Behaketa partehartzailea. Praktika honetan etnometodologia erabiltzen da. Honetarako, esanahi kulturala duen ekitaldi batean egotea, partehartzea eta behatzea eskatzen da. Jarduera unibertsitatean bertan edo unibertsitatetik kanpo egingo da, irakasleak lagunduta. Praktikaren helburua, ikaslea testuinguru sozial hurbilean bizi den dimentsio kulturalaz jabetzea da. Praktika honen bitartez ikaslea ikerkuntzan partehartuko du eta eguneroko bizitzan kulturak duen esangura ulertuko du (Gaitasuna: 2, 3, 4)

3 praktika (GP2). Inmigratioari buruzko diskurtsu analisia. Inmigratioari buruzko

diskurtsuak mahaigaineratzen dira, berauen inguruko hausnarketa egiten da eta eztabaidatzen da noraino oinarrituta dauden diferentzia kulturaletan eta noraino estereotipoetan. Jarduera honek bizikidetzaren inguruko diskurtsuak lantzen ditu eta iritzi ideologiko ezberdinen artean eztabaida sustatu egiten du (Gaitasunak: 2, 4)

4 praktika (OP1). Osagai soziokulturalen eragina hizkuntzaren erabileran. Bi telebista spotak ikusten dira eta hizkuntzaren alderdi pragmatikoak aztertzen dira. Jarduerak lortutako ezagutzak praktikan jartzea eskatzen du, testuen azterketa kritikoan oinarrituz (Gaitasunak: 1, 3)

5 praktika (OP2). Botere harremanen eragina hizkuntzaren erabileran. Boterearekiko distantzia handiko kultura batean ematen den elkarrizketa zati bat ikusi eta aztertu egiten da. Estatus quoa legitimatzeko eta mantentzeko erabiltzen diren eredu linguistikoak aztertzen dira. Praktika honek eredu teorikoen azterketa eskatzen du, hizkuntza testuinguruan lantzeko beharra azpimarratzen du eta emaitzak iritzi kultural ezberdinetatik eztabaidatzeko aukera ematen du (Gaitasunak: 1, 2, 3, 4)

6 praktika (OP3). Pertsonarteko harremanetan bateratze eta desberdintze egokiera komunikatibo estrategiak aztertzen dira. Bost elkarrizketa zati ikusten dira bideoan eta bertan erabiltzen den hizkuntza aztertzen da, atzean dauden oinarri psikosozialak azalduz. Jarduera honetan eredu teorikoak aplikatzen dira eta hizkuntza portaerak aldagai kulturalen arabera ulertzen errazten du (Gaitasunak: 1, 2, 3)

7 praktika. Hizkuntza ofizialen estatus desberdintasunari buruzko diskurtsu analisia. Hizkuntza ofizialen estatusa mantentzea edo aldatzea proposatzen duten bi dokumentu aztertzen dira. Jarduera honek bizitasun etnolinguistikoaren kontzeptua lantzeko aukera ematen du. Arazo sozial bati buruzko konzientzia hartzea sustatzen du eta iritzi ezberdinak plazaratzeko aukera ematen du (Gaitasunak: 1, 2, 4)

2.- Praktika jarraia. Ikasgai honek lan teoriko, enpiriko edo eskuhartze proiektu bat idaztea eskatzen du, kultura eta hizkuntzaren psikologiaren alorrean. Lau pertsonetako taldeetan egiten da. Lan teorikoak ikasgaiaren gai batean sakontzeko aukera ematen du. Lan enpirikoak ikasleak jasotzen dituen datuen lanketa eskatzen du, paradigma metodologiko bat erabiliz. Eskuhartze proiektuak eskoletan edo erakundeetan kulturarteko komunikazioa sustatzeko diseinatzen dira. Tailerretan lan honi buruzko informazioa emango da. Bertan lanaren tutorizazioa eta jarraipena egiten da. Lana hiru zatitan entregatzen da lana erritmo egokian garatzeko eta irakasleak behar duen feedbacka emateko. Azkenengo bi mintegietan ikasleak bere lan teorikoa edo eskuhartzea aurkezten du. Talde lan honek ikasgaiaren gaitasun guztiak lantzeko aukera ematen du (Gaitasunak: 1, 2, 3, 4, 5, 6)

(*) Komenigarria litzateke jarduera bakoitzarekin zein gaitasun garatzen den zehaztea, bai eta gaitasunaren zenbakia ere.

5.-IRAKASGAIAREN PLANGINTZAKO KRONOGRAMA

(jarraibideak: Psicoplaneko taula kopiatu eta atal honetan itsatsi)

6. EBALUAZIO-SISTEMA (TEORIA ETA PRAKTIKA)

Bi ebaluazio mota daude: Jarraia eta globala. Ebaluazio jarraiak ikastaroaren jarduera guztiak burutzea eskatzen du. Ebaluazio globalean berriz, ikasleagoari notaren %100a azterketa global batean lortzeko aukera ematen zaio.

Ebaluazio jarraia.

Ikasgaiaren eduki teorikoa azterketan ebaluatzen da. Hau azken notaren %50a da. Eduki praktikoa gainontzeko %50a da.

Azterketan 4 galdera labur erantzun beharra dago (azken notaren %50).

Eduki praktikoa ebaluatzeko, 7 praktika laburrak eta praktika jarraia egin eta gainditu beharra daude. Egin beharreko 7 praktikek %20 eta praktika jarraiak %30 balio dute.

Ebaluazio globala.

Azterketa globalean 4 galdera labur erantzutea eskatzen da (%60). Zati praktikoari buruz, jarduera praktikoko baten inguruan informe laburra egitea eskatzen da (%40).

7. DOCUMENTAZIOA/BIBLIOGRAFIA

OINARRIZKO:

- Apodaka, E. (2004). *Komunikazioaren gizarte psikologia*. Bilbo: UEU.
- Azurmendi, M. J. (2000). *Psicosociolingüística*. Bilbao: UPV/EHU.
- Gudykunst, W. B. (2004). *Bridging differences: Effective intergroup communication*. California: Sage Publications.
- Páez, D. et al (2003). *Psicología Social, Cultura y Educación*. Madrid: Pearson.
- Smith, P. B., Bond, M. H., eta Kagitçibasi, Ç. (2006). *Understanding social psychology across cultures*. London: Sage Publications.

OSAGARRI:

- Azurmendi, M.-J. (2000). La vitalidad etnolingüística relativa subjetiva (VELS). La culturación (Modelo MIESC). La identidad social (IS). La identidad etnolingüística (IEL). In Azurmendi, M.-J., *Psicosociolingüística*. Bilbao: UPV/EHU.
- Azurmendi, M.-J. & Larrañaga, N. (2008). La inmigración emergente en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) desde la sociedad de acogida: la aculturación. In J.F. Morales, C. Huici, A. Gómez & E. Gaviria (coords.), *Método, teoría e investigación en psicología social*. Madrid: Pearson-Prentice Hall.
- Berry, J.W. (2005). Conceptual Approaches to Acculturation. In K.M. Chon, P.B. Organista & G. Marin (eds.), *Acculturation. Advances in Theory, Measurement and Applied Research*. Washington, DC: American Psychological Association.
- Bourhis, R. Y., Giles, H., y Rosenthal, D. (1981). Notes on the construction of a subjective vitality questionnaire for ethnolinguistic groups. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 2, 144-155.
- Bradac, J. J., Cargile, A. C., y Hallett, J. S. (2001). Language attitudes: Retrospect, conspect, and prospect. En W. P. Robinson y H. Giles (Eds.), *The new handbook of language and social psychology* (pág. 137-155). Chichester: John Wiley and sons.
- Breugelmans, S. M. y Poortinga, Y. H. (2006). Emotion without a word: Shame and guilt among Rarámuri Indians and Rural Javanese. *Journal of Personality and Social Psychology*, 91 (6), 1111-1122.
- Brown, P., y Levinson, S. (1987). *Politeness: Some universals in language use*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Cousins, S. D. (1989). Culture and self-perception in Japan and the United States. *Journal of Personality and Social Psychology*, 56, 124-131.
- Demoulin, S., Leyens, J. P., & Dovidio, J. F. (2009). *Intergroup misunderstandings. Impact of divergent realities*. London: Psychology press.
- Fitch, K. L. & Sanders, R. E. (2005). *Handbook of language and social interaction*. New Jersey: Lawrence Erlbaum Associates.
- Giles H. y Ogay, T. (2007). Communication accommodation theory. En B. B. Whaley y W. Samter (Eds.), *Explaining communication: Contemporary theories and exemplars* (pág. 293-310). Mahwah: Lawrence Erlbaum Associates.
- Goffman, E. (2001). *Estigma: La identidad deteriorada*. Buenos Aires: Amorrortu editores. Primera edición en inglés en 1963.

- Holtgraves, T. M. y Kashima, Y. (2007). Language, meaning, and social cognition. *Personality and Social Psychology Review*, 12 (1), 73-94.
- Kim, Y. Y. & Gudykunst, W. B. (1988). *Theories in intercultural communication*. Newbury Park: Sage publications.
- Kitayama, S., & Cohen, D. (2007). *Handbook of cultural psychology*. New York: The Guilford Press.
- Maass, A. (1999). Linguistic intergroup bias: Stereotype perpetuation through language. En M. P. Zanna (Ed.), *Advances in experimental social psychology* (vol. 11, pág. 79-122). California: Academic press.
- Ng, S. H., Candlin, C. N., & Chiu, C. Y. (2004). *Language matters: Communication, culture, and identity*. Hong Kong: University press.
- Ros, M., Cano, I. y Huici, C. (1987). Language and intergroup perception in Spain. *Journal of Language and Social Psychology*, 6 (3-4), 87-103.

BALIABIDEAK INTERNETen:

<http://www.ehu.es/pswparod/>

<http://geert-hofstede.com/countries.html>

<http://www.worldvaluessurvey.org/>

<http://www.7billionothers.org/es/testimonies/podcast>

<http://www.ikuspegi-inmigracion.net/eus/>

<http://www.mugak.eu/eu/nor-gara>

<http://turismoirresponsable.info/>

<http://www.emun.com/>

<http://www.soziolinguistika.org/eu/node/1108>

<http://www.sil.org/>

<http://www.ialsp.org/conf.html>

<http://www.discourses.org/>

http://www.adviceguide.org.uk/wales/discrimination_w.htm

<http://knowledge.sagepub.com/view/multiculturalpsychology/SAGE.xml>

8. TUTORE-ORDUTEGIAK

Tutoretza ordutegia ezagutu ahal izango da hurrengo bideen bitartez

- Moodle ikasgela birtualean
- Bulegoko atean ikusgarri
- Interneten